



Sarrera

Jakiteko zer motako izaki bizidunak garen, gure ezaugarriei erreparatu behar diegu eta beste izakien ezaugarriekin alderatu.

Animaliak gara

Gizakiok, beste izaki bizidunak elikatzen gara: landareak, animaliak, onddoak eta algak jaten ditugu. Horrez gain zentzumen-organoak dauzkagu eta batetik bestera ibiltzen gara. Beraz, animalien ezaugarriak baditugu.

		
Txakurrak arnasa hartzen du. Ez du elikagairik fabrikatzen. Zentzumen-organoak ditu eta batetik bestera dabil.	Landareek arnasa hartzen dute eta elikagaiak fabrikatzen dituzte. Landareek ez dute zentzumen-organorik eta ez dira batetik bestera joaten.	Gizakiok arnasa egiten dugu eta beste izaki bizidunak elikatzen gara. Gizakiok zentzumen-organoak dauzkagu eta batetik bestera joaten gara.

Zer motako animaliak gara?

- Oxigenoa airetik hartzen dugu eta uretatik kanpo bizi gara.


Lehortarrak gara

- Elikadurari erreparatzen badiogu, landareak zein animaliak jan ahal ditugu; beraz, **orojaleak** gara.
- Ugaltzeko moduagatik **bibiparoak** gara, amaren sabelatik jaiotzen garelako. Eta **ugaztunak** jaio ondoren amaren esnea hartzen baitugu elikatzeko. Egia esateko, beste ugaztun batzuekin antz handia dugu, tximinoarekin eta gorilarekin esate baterako.

- Gure gorputzean **hiru atal nagusi bereizten ditugu: burua, enborra eta gorputz adarrak**, eta barnean eskeletoa; hortaz, **ornodunak** gara.

Aldi berean atal bakoitzean beste hainbat atal eta organo aurkitzen ditugu.

Hauetariko bat larruazala da, hau daukagun organorik handiena da. Gure gorputza inguratzen eta babesten du. Larruazala hesi iragazgaitz (impermeable) malgua da. **Melanina** izeneko substantzia bat dauka. Honek eguzkitik babesten gaitu, eta azalari kolorea ematen dio.



Ez gara beste animaliak bezalakoak

- Gure gorputzeko goiko adarrek beste animaliek ez duten berezitasun bat dute. Gure eskuek **erpuu oposagarria** dute, honek permititzen digu beste lau atzamarren aurrez-aurre jartzea eta, horrela, zehaztasun handiz har ditzakegu gauzak.

- Zutik ibiltzen gara. Gure beheko gorputz-adarren gainean artez ibiltzen gara. **Ugaztun hankabiko bakarrek gara.**
- **Gure garunak ahalmen apartekoa du.** Berari esker, adimen handia dugu eta gauza asko egiteko gai gara. Honi esker ere, gizartean bizi gara; hau da, beste pertsona batzuekin. Familiak sortzen ditugu, elkarri laguntzen diogu, dakiguna konpartitzen dugu, besteekin jolasten gara eta hiri eta herrietan bizi gara.